



Ebazpena, 2026ko irailaren 18koa, Langileak Kudeatzeko Zuzendariarena, zeinaren bidez epe espezifiko bat irekitzen baita "Transkribatzailea - Material-egokitzailea" kategoriako aldi baterako premiak bete ditzaketen hezkuntza-laguntzako espezialistentzat.

"Transkribatzailea - Material-egokitzailea" zerrendako langileak ez dira nahikoak izan kategoria horretako premiei erantzuteko. Horregatik, beharrezkoa da kategoria horretan aldi baterako beharrak betetzeko deitu ahal izateko baldintzak betetzen dituzten pertsonen zerrenda zabaltzea. Aukera hau Hezkuntza Laguntzako Espezialisten (HLE) zerrendako langile guztiei eskaini behar zaie, baita kategoria horretako langile finkoei ere, baldin eta baldintzak betetzen badituzte eta berariaz adierazten badute interesa dutela.

Neurri hau babesten duen arrazoia, biltzen diren inguruabar objektiboen haztaperen oreakatua da; izan ere, "Transkribatzaile -Material-egokitzaile" kategoria HLE kategoriaren oso antzekoa da oinarritzko baldintzetan. Hala ere, zerrenda honetan sartzeko hezkuntza laguntzako espezialista izateaz gain, aurrerago adierazten den lanbide heziketako tituluaren jabe izan beharko da.

Azaldutako guztiagatik, eta eman zaizkidan ahalmenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Epea eta eskabideak. Berariazko epe bat gaitzea hezkuntza-laguntzako espezialistak beraien eskabidea aurkezteko, bai langile finkoentzat bai zerrendetako kideentzat, eskabide horretan "Transkribatzailea - Material-egokitzailea" kategorian egon daitezkeen aldi baterako beharrak estaltzeko interesa eta prestasuna adierazteko. **Epe hori irailaren 22tik 25era** izango da, biak barne. Eskabideak Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio eta horretarako ezarriko den formulario bidez aurkeztuko dira.

Bigarrena.- Titulazioa. Aurreko puntuan adierazitako HLE izaeraz gain, erdi mailako lanbide heziketako "Administrazio-kudeaketako teknikari" tituluaren jabe izan beharko da edo "Administrazio eta Finantzaketako goi-mailako teknikari" tituluaren jabe, edo bietako edozeinen baliokidea den beste tituluren bat izan beharko da. Era berean, gutxienez HLEA hizkuntza eskakizunaren jabe ere izan beharko da.

Hirugarrena.- Antolamendua. Adierazitako baldintzak betetzen dituzten langileetan lehenik eta behin langile finkoak lehenetsiko dira, eta langile finkoak beraien zerbitzu denboraren arabera ordenatuko dira. Azken langile finkoaren ondoren, aldi baterako langileak beraien zerbitzu denboraren arabera ordenatuko dira eta aldi baterako azken langilearen ondoren, kontraturik ez duten baina zerrendetan dauden hautagaiak ordenatuko dira beraien zerbitzu denboraren arabera; berdinketarik balego, Hezkuntza Sailak berdinketak hausteko ikasturte honetarako erabiltzen duen letra erabiliko da.



**HEZKUNTZA SAILA**

Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Viceconsejería de Administración y Servicios
Dirección de Gestión de Personal

Laugarrena.- Indarraldia. Berriazko deialdi honen zerrenda laburtua aktibo egongo da kategoria horretarako ohiko deialdi orokorra egin arte.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren data orduan

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

UNAI NIETO MARIJUAN